



■ ASTIGARRAGA

9.291.408 euroko aurrekontua onartuta

EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren aurkakoekin aurrera atera da 2020rako Udal aurrekontuen hasierako onarpena eta %4 haundiagoa da 2019koa baino.

ASTEARTEAN Xabier Urdangarin alkateak azaldu zuen Plenoan 2020ko Udal aurrekontua 2019koa baino %3,99 haundiagoa dela. «Gehien igo direnak izan dira transferentzia arruntak (besteak beste, diru-laguntzak, %5,77 igo direnak), eta inbertsioak (%54,06 igo dira)». 2020-2023 urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoa ere onartu zuten berriro, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin. /8

■ URUMEA

Hildakoak gogoan, atzoko egunez

Astigarraga, Arano, Goizueta eta Hernaniko hilerrietan hildakoak gogoan eduki zituzten atzo San Guztien egunean. /4-9

■ ASTIGARRAGA

Azaroko aurreneko notak elizan

Azaroko kultur agenda gaur jarriko da martxan Oxfordeko 'The Korrigan Consort' abesbatzarekin, elizan. /7

■ GOIZUETA

Jubilatu festa, asteburuan zehar

Gaur eta bihar jubilatuen festa ospatuko dute. Truk eta mus txapelketak emango dio gaur hasiera eta bihar bazkaria egongo da. /10

GAUR KRONIKAN

Hernani /4-5

Antzerkia, bertsolaritza...

Astigarraga /7-9

Gazte Asanblada, DBH, Azstigazte, ondarea..

Urumea /10-11

Abesbatza, garagardo festa..

Kirolak /12-15

Errugbia, futbola..



Hil eta bizi, elkarbizi

Mende erdi egin du Goizuetan, Don Esteban apaizak. Santu Guztien eguna baino lehen hartu du erretiroa. Baina mezarik ez da falta asteburuan. /2-3, 4, 9

Argazkia: FELIX LOIARTE

Zorionak
Urkia
Zubeltzu
Bakedano !

9urte

Zorionak
Uxuri
Garayoa
Aristi !

9urte

TALLERES JUANTXO
Juan Ignacio Rodriguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa
- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea. Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

ESPECIALISTAS EN MARISCOS

MARISCOS HERNANI

Javier Juaristi
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

SANTA BARBARA JATETXEA

Babarrun janak sakramentuekin, postrea eta edaria

20 €
Enkarguz

Santa Barbara, 2. Hernani
Tel: 943 33 13 87

■ GOIZUETA ELIZA

«Garai bateko Goizueta nolakoa zen elizan dauden aztarnek erakusten digute»

Esteban Irurtzun Balda Goizueta eta Aranoko apaiza jubilatu berri da bertan 50 urte eginda. Elizak bizi izan dituen aldaketak ongi ezagutzen ditu. «Jubilatu arren sakramentuetarako kotxean bila etortzea besterik ez dago».

50 urte eman ditu Don Esteban Irurtzun Baldak Goizuetako apaiz moduan, eta orain, erretiroa hartu berri du pasa den urriaren 13an azkeneko meza eskaini eta gero, herritarren aurrean. Mende erdia egin du Azkaraten jaio zen apaizak. Ez da ahuntzaren gau erdiko ez-tula. «Atallutik gora joanda, naparra» dio harrotasunez, baina harrokeriarik gabe orain gutxira arte Goizuetako apaiza izan denak. Hala ere goizuetar guztientzako beti izango da herriko apaiza. Kaletik denek «kaixo apaiza» agurtzen dute eta badakite Don Esteban beti izango dela beraien apaiza.

Iruñeako seminarioan egin zituen ikasketak Don Estebanek. Orain 80 urte ditu eta bere apaiz ibilbide osoa Goizuetan du egina. «Egundaino hemen egon naiz eta orain jubilazioa hartu beharko nuela esan zidaten. Eginak nituela urte dezente esan zidaten apezpikutzatik».

Apaiza beti izango da apaiza, baina erretiroa ere hartzen dute eta agindua apezpikuaren aginduz etortzen da. Hala ere zerbitzua mantenduko da. «Apaiza gutxi gara eta erabaki dute zonaldeka banatzea. Goizueta dago Lekunberri, Leitza, Aldatz, Etxaleku, Betelu, Areso, Arano, Berueterekin batera. Hiru apaizek ematen dituzte zerbitzuak. Egitekoak banatuko dituzte».

Hiru apaizen artean banatuko dituzte eskualdeko zerbitzuak

Herri bakoitzak, esaterako, ordutegi bat du finkatua mezetarako. Ez da ahaztu behar Don Esteban urte guzti hauetan Aranoko apaiza ere izan dela. «Orain beste hiru apaizen artean banatuko dituzte eginkizun guztiak. Aurreko batean etortzekoa zela, baina ez dela etortzen esan zidan herritar batek». Zerbitzuak eta mezak emango dituzten apaizak honakoak izango dira: Ignacio Azcoaga «Erroman ikasten egon da» dio Don Estebanek; Jesus Mari Sotil «Aralarko San Mielen irudiarekin ibiltzen da



Don Esteban Irurtzun Balda, Asuntzion eliza atzean duela. Argazkia: Felix Loiarte

Ignacio Azcoaga, Jesus Mari Sotil eta Santiago Garisoain dira hiru apaiz berriak eta atarian daude beraien kontaktuak, goizuetarren eskura.

hara eta hona» gogoratzen du apaiza erretiratuak; eta Santiago Garisoain «bere apaiztasunean eskainiko zen seguru-erik». Hala ere, beraien telefonoak elizaren atarian daude jarrita, baita meza orduak ere. «Edozeinek eskura ditu beraien telefonoak zerbitzu beharko balu, baita ordutegia ere. Lekunberrin dute egoitza».

Jubilatu arren azken sakramentuak emateko beti dago prest. «Hori bai, horretarako deitu eta kotxean etortzea da baldintza bakarra».

«Elizak garai bateko herriaren aztarnak gordetzen ditu»

Azken 50 urte Goizuetan pasa eta gero esan liteke goizuetar bat gehiago dela eta herriaren aldaketak urte guzti hauetan gertutik ezagutu ditu. «Elizatik

bertatik hasita. Asko aldatu dira bai herria eta bai eliza. Orreagakoak ziren material asko eta handik soberan zeudenekin daude eraikiak Goizuetako eta beste eliza asko».

Garai batean herria nolakoa zen ondo erakusten digu elizari begiratzen badiogu eta Don Estebanek ongi azaltzen du. «Ur bedeinkatua hemen kanpoan zegoen. Atarian ikusten diren harriak garai bateko elizarenak dira eta badira seinale oso dotoreak. Arano eta Goizuetako funeral bakoitza zer klasetakoa zen bereizten duten aztarnak badaude. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak, familien arabera. Ofrenda ekartzen zuten; maila altuagokoek akerra gero jateko eta bertan lotzeko eraztuna oraindik hemen dago. Seinale asko».

Don Esteban bere etxea izan

«Asuntzion elizan berrikuntza asko egin ditu urte hauetan guztietan»

den elizak du maitemindua eta pasioz hitz egiten du Asuntzion parrokiari buruz. Bere lanari esker itxuraldatu eta asko eraberritu da azken mende erdi guztian zehar.

Ezkontza daten abisuak herritarrek aldareko meza emateko harrizarrean uzten dituzte eta Don Estebanek jaso, irakurri eta prestatu ditu urte askotan. Orain ere begiratzen ditu eta behar bada abisua pasa dagokionari. «Bi metroko luzera eta 20 zentimetroko lodiera du. Harrobitan lan egiten zuten maisuek ekarri zuten, Alkantetik, eta marmolezkoa da. Hemen eman nuen azkeneko meza apezpikuarekin».

«Ameriketara bizi diren goizuetar askok egin dituzte aportazioak»

Aranotik etorri eta ikusi zuen

nola ekarri zuten, belauniko jarri eta Jaungoikoari eskerrak ematen egon zen. «Pentsa, berrikuntza hauek guztiak herritarrei esker egin dira, beraien aportazioekin, eta jartzerakoan puskatu balitz a zer disgustoa. Batez ere Ameriketara joandako goizuetarren eskutik jaso ditugun laguntzei esker egin ahal izan dira berrikuntzak elizan. Badira urte batzuk».

Kontuan hartu behar da eliza bukatu gabe geratu zela «diru faltagatik» eta gero etorri zen Ameriketatik laguntza. «Goizuetako semeek bidalita. Obra bakoitza egiten zutenean beren agiria ez zuten ezabatzen. Aurrekoek egindakoa errespetatzen zuten».

«Meza entzutera etorriko naiz eta jaunartzera besteak bezala»

Eliza eta eliztarren perfila ere aldatu da urte guzti hauetan. «Bai noski» dio Don Estebanek. «Etorri berri naiz Leitza eta haurren jaiotzak asko jaitsi omen dira eta hori arazoa da. Bataio gutxiago, jende gutxiago etortzen da elizara».

Herritarren estimua jaso zuen erretiro egunean bere irudiekin.

Haurra bataiatzerako garaian oroigarri gisa gordetzen dira argazkiak. «Horrek asko esan nahi du, oroitzapenak ez ditugula ahazten modu horretan. Amaren tripan bederlatzi hilabete egon ondoren elizan bataiatuta elizarengandik bizi behar duzu. Kristauak geratzen dira zure esku senitartekoei zerbait gertatuz gero. Bakoi-tzak bere zainak ditu. Hori dena azaldu izan dut bataio bakoitzean». Orain egin behar horiek alde batera utziko ditu. «Orain ez dut obligazio haundirik baino nahi duenarentzat hemen nago».

Goizuetako elizak ezaugarri bereziak ditu eta Don Estebanek 50 urtetan ere erlazio estua egin du herriarekin. Orain erretiratuta «meza entzuteran eta jaunartzera etorriko naiz, besteak bezala. Kontaktua ez da eten, mantentzen dut». Elizako mantenu lanak ere bere esku daude eta eliza inguruan ibiltzen da beti baitago egitekoa.

Jendea oraindik ere hurbiltzen da Goizuetara eta apaizak 10 euroko estipendia, meza emateagatik ematen zaion dirua, ezarria zuen. «Elizak gainera sonoritate

itzela du. Ikaragarri ona, elizak ezaugarri bikainak ditu».

Kapera museo bihurtu du Don Estebanek «balio haundiko arte lanekin»

Elizaren iskina batean Zibola etxeko anderearen kapera zena ikusi daiteke. Goizuetako familia aberatsak bazuten leku pribilegiatua, garai batean herrian zeuden gizarte-klase desberdinen erakusgarri. «Ekartzen zuten eta hemendik kaperatik entzuten zuen meza».

Orain kapera 'museo' bezala bihurtu du Don Estebanek. «Jendeak gauzak ekartzen ditu, baina hemen daude erloju bat, kutxak, garai bateko karga gutxiko harri porosoak, kandelabroak, San Joakin eta Santa Anaren arteko besarkada, Hirutasuneko misterioa, Junkaleko Ama Birjinaren irudia ere hona bidali zuten eta ez zekiten hemen zegoenik... eta prozesioetarako Ama Birjinaren irudi gotikoa» erreferente dena. «Eliza honetan balio haundiko arte lanak daude» adierazten du apaizak.

Hala ere, gizatasun balioa ere kontutan hartu behar da eta Goizuetako herriak eta herritarrek bere estimua erakutsi zioten azken meza eman zuen egunean. «Nire bizitza, nire jatorria eta ibilbidea jarri zuten erakusgarri irudiekin elizako paretean, historiala. Eskarmentu haundia dut». ■

«Bataiarriak du sinbolismo gehien eta Kristoren irudiak balio haundiena»

Asuntzion Eliza gotiko errenazentista estilokoa da eta bertan dagoen Kristoren irudia «Tolosan eskolan egina da 16. mendean.

Asuntzion Eliza (1561-1725) gotiko errenazentista estilokoa da eta bere tamaina haundia herriaren erdian nabarmentzen da: 37 metroko luzera, 18 metroko altuera eta 18 metroko altuera duen gurutzadura. Beste hamar metro gora teilatua egiteko. Erretaula Nagusia (1762) rokoko estilokoa da. Ondean Pietatearen aldare txikiak (16. mendea), Arrosarioko Ama Birjina (17. mendea) eta San Migel (18. mendea) daude. Era berean, 16. mendeko bataiarria, bi solairuko egurrezko korua eta Amezuak (1826-1935) egindako organoa nabarmentzen dira.

Gurutze latindarreko oinplanoa du, arkupea gurutzegangaz estalia eta dorre karratu txikia. Portadak erdi-puntuko arkuak eta kanpoko konopial bat konbinatzen ditu. Plateresko erretaula nagusiak Pietatearen tailua du arrazoi nagusi. Alboko kapera batek, Jesusen Haurtzaroko eszenak dituen erretaula baten zatiak gordetzen ditu.

«Donostiako San Telmokoak aukeratu zuten» eskuineko



Goizuetako Asuntzion eliza plazatik begiratuta.

erretaula txikiagoa. «Arrosarioko Amabirjina. Goran daude Nafarroako Santuak: San Martin bere kapa pobreei ematen, kristautasunera konbertsioa benetakoa zela egiaztatzen duena; San Migel, herensugearekin, irudi hau nahiko baztertua dago gaur egun; San Antonio de Padua; eta erretaula txiki honen goialdean San Fermin».

Hala ere sinbolismo haundia bataiarriak du Don Estebanen ustez. «Bi pusketakoa da, behekoa eta goikoa, hemen

Jesus Homos Salvator jartzen du letra gotikoekin».

Eta balio haundiena erretaulan dagoen Kristoren irudiak dauka, Don Estebanen hitzetan. «Triangulo forma du, benetakoa dugu eta zer da benetakoa izatea? Badakigu nork egin zuen, noiz egin zuen eta noiz ekarri zuten. Eta beste elizetan hori ez dakite. Tolosako eskolan egina dago 16. mendean». Dударik gabe lan haundia egin da bertan eta laguntzaile haundiak izan dira. ■



Bozkatu Vota

ehbildu

Mertxe Alzpurua

Jon Ibarritu

Gorka Elejabarrieta

Erabaki

BAIETZ!

■ HILDAKOEN EGUNA

Santu Guztien eguna eta gero gaur hildakoen omenez, meza

Aurreko urtean baino jende gehiago ibili zen hilerrian eta gaurko bi meza antolatu dira, bat 09:00etan eta bestea, 19:00etan.

ATZO Santu Guztien eguna ospatu zen, eta horretarako hainbat elizkizun antolatu ziren Urumea bailaran, hala nola, Hernanin, Astigarragam eta Ereñotzun. Elizkizunez gain, herritarrak, hilerrira hurbildu ziren, lore sorta berriak eramatera, bazterrak txukuntzera edo bisita egitera. Gainera bertaratutakoentz hitzetan aurreko urteetan baino jende gehiago ibili zen.

Gaur, bi elizetan

Gaurkorako ere bi meza antolatu dira, goizeko 09:00etan izango da lehenena, Agustinetan eta arratsaldeko 19:00etan San Joan Bataiatzailea parrokiari, azkena ■



Atzo, hilerrira bisita egin zuten herritar askok Santu Guztien egunean.

■ ANTZERKIA

Haur antzerkirako eta antzerki ziklorako sarrerak salgai, etzi

Astelehenean jarriko dituzte Biterin eskuragai 3 euroan umeena, eta 7,5 euroan helduena. Lau antzerki izango dira guztira.

ASTELEHENEAN jarriko dira salgai antzerki ziklorako eta haurren antzerkirako sarrerak. Haurren kasuan, antzerki bakarria egongo da, azaroaren 9an. Hori bai, bi sesio egingo dira Biteri kultur etxean, aurrenekoa 11:00etan eta bigarrena 12:30etan. Urte bete eta bost urte bitarteko haurrentzat zuzendutako antzerkia izango da. Sarrera 3 euro da.

Antzerki ixila izango da

Haurrentzako antzerkia haurtzarorako proiektu eszeniko bat izango da, Cristobal Balenciagaren unibertsoan inspiraturik.

Airearekin eta gorputzarekin mugimendua jostea, ehunaren dantza egiteko da helburua. Espazioa janzten duen oihal haundi bat, bertan gorputz jostalariak dantza egiteko

erabiliko da.

Hiru lan, antzerki zikloan

Hiru antzerki eskainiko dira antzerki zikloan: *Zeru urdina* lehena, azaroaren 12an; *Azaroaren 13an, Utzi mezua seinalearen ondoren*; eta azaroaren 14an, *Elisa Y Marcela*. Arratsaldeko 20:00etan hasiko dira antzerki gutziak, eta sarrerak 7,5 euro balio du. ■

■ FELIX UGARTE ELKARTEA

Iturmendiko kobazulora bixita, bihar zortzi

Goizeko 11:00etan hasita izango dira bisitak, bertaratzen direnen artean.

URTERO bezala, Iturmendiko jentilzuloa bixitatzeke aukera eskainiko du Felix Ugarte elkarteak aurten ere. Hurrengo igandean izango da hori, azaroaren 10ean, hain zuzen.

Goizeko 11:00etan hasiko dira bixitak, eta jende guztia

sartu arte izango dira bertan, eguerdira arte, seguraski, gerturatzeko den jende kopuruaren arabera.

Sarrera librea izango da, eta bertaratzen den oro sartu ahal izango dela adierazi dute antolatzaileek. ■

■ ZINEA

Bi pelikula, gaur eta bihar

Astebururo bezala, bi pelikula ikusi ahal izango dira Biterin gaur eta bihar. Haurrentzat, Asto Erregea jarriko dute gaur eta bihar arratsaldeko 16:30etan; eta helduek, aldiz, *Downton Abbey* ikusi ahal izango dute astelehenera arte. Gaur, 19:30etan eta 22:30etan; bihar, 19:30etan; eta etzi, 16:30etan. ■

■ ELUR TXORI

Elur Txorin sagardo txapelketa, gaur

Sagardo txapelketa egingo du Elur Txori elkarteak gaur 35garrenez. Izena eman dutenek, iluntzeko 20:00etatik aurrera gozatu ahal izango dute txapelketarekin. ■

■ ODOL EMAILEAK

Odola emateko zita, beste behin

Hileko lehenengo asteartea izanik, odola emateko zita jarri du Hernaniko Odol Emaileen taldeak datorren asterako, hilaren 5erako, hain zuzen. Arratsaldeko 18:00etatik iluntzeko 20:30etara izango da aukera, anbulategian. Organu-emaile ere egin ahal izango da. ■

■ PLENOA

Apostu-etxeen mozioan, aldaketa

Apostu-etxeen inguruan, mozioa onartu zuen asteartean Udaleko Plenoa. Nahiz eta hasiera batean horrela izan, teknikarien gomendioei jarraituz, apostu-etxeak jartzeko 30.000 euroko gutxienez izatea eskatzen zuen baldintza ezabatu egin zutela adierazi du Elkarrekin Podemos Orain Hernani udal taldeak. Adierazi dutenez, asmoa da «legeak uzten duten zailtasun guztiak jartzea halako establezimenduak jartzeko». ■



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

EH BILDU A10

Mertxe Aizpurua eta Gorka Elejabarrieta etzi, Biterin

Arratsaldeko 19:00etan egingo du EH Bilduk ekitaldia, hauteskunderen aurretik.

BOZEKIN beste hitzordu bat izango dute herritarrek hurrengo igandean, bihar zortzi. Hain zuzen, Kongresuko eta Senatuko ordezkariak, berriro ere, aukeratu beharra daude, eta bide horretan, atzo hasi zen, ofizialki, hauteskunde-kanpaina.

Honen baitan, astelehenean egingo du ekitaldia EH Bilduk Hernanin. Biteri kultur etxeko areto nagusian izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita, eta bertan izango dira Mertxe Aizpurua eta Gorka Elejabarrieta, EH Bilduren hautagaiak.

Aizpurua eta Elejabarrieta izango dira Kongresuko eta Senatuko zerrenda-buruak, hurrenez hurren. Eta haiekin batera izango dira, besteak beste: Kongresuan, Jon Iñá-

rritu, Esther Larrañaga eta Hernanin bizi den Juan Mari Olano; eta Senatuan, Olaia Duarte eta Aitor Ibero, Hernaniko Udaleko langilea.

Ordezkaritza sendoa izatea, helburu

Hernaniko EH Bilduk ohar batean azaldu du «garrantzia haundia» eman diola Kongresu eta Senatuan «ordezkaritza sendoa» izateari, beraz, kide eta zaleak gonbidatu ditu hautagaiekin egingo den ekitaldian eta bihar zortzi egingo diren hauteskunderen parte hartzera.

Izan ere, Hernaniko EH Bildutik aldarrikatu dute: «gure eskubideak errespetatu daitezten, guk egiten ez badugu, ez du gugatik inork egingo», adierazi dute. ||

BERTSOLARITZA

Beñat Gaztelumendi Gipuzkoakoan, gaur

Añorgarrak gaur hasiko du txapelaren defentsa, Azkoitiako Baztartxon.

GIPUZKOAKO Bertsolari Txapelketaren bosgarren eta azken final-laurdena, gaur jokatuko da Azkoitiako Baztartxo Antzokian, arratsaldeko 17:00etan.

Hernaniko Bertso Eskolatik Beñat Gaztelumendi añorgarra izango da bertsotan; aurreneko kantatuko du aurtengo txapelketan. Berekin batera ariko dira, baita ere: Ane Labaka, Ander Lizarralde, Ane Zuazubiskar, Mikel Artola eta Maialen Akizu. Gaztelumendi da gaur egungo Gipuzkoako txapelduna, eta beraz, txapelaren defentsa hasiko du gaurtik.

Azkoitiako irabazlea, zuzenean sailkatuko da finalurrekoetara eta gainontzeko bertsolarien, puntuazioaren

arabera izango dute horretarako aukera.

Eñaut Martikorena eta Agin Laburu, finalerdietan

Gaur ezagutuko dira finalerdietan nola geratuko diren. Oraingoan, Hernaniko Bertso Eskolak finalerdietarako sailkatuta ditu Eñaut Martikorena eta Agin Laburu eta ez nolanahi. Biak ere beraien finalaurdenak irabazita sailkatu dira. Jon Maia eta Oihana Iguaran izan dira beste bi saioetako irabazleak. Beste hamahiru sailkatuak puntuazioaren arabera izango dira.

Asier Azpirozek sailkatu beharko luke puntuaketaren arabera, baina zailagoa du Unai Gaztelumendik. ||

ADITUAK ESANA

Kanpo desparasitazioaren garrantzia, urte osoan zehar



Kanpo parasitoak (arkakusoak eta garrapatak, batez ere), deserosoak izateaz gain, oso arriskutsuak ere izan daitezke guretzat eta gure maskotentzat. Izan ere, Ehrlichiosis, Piroplasmosis edo Lyme bezalako gaitzak sortu ditzakete, besteak beste.

Askok neguan zehar maskotak desparasitatzeari uzten diote, baina gaur egun, aldaketa klimatologiko nabariarekin, hori egitea akats bat da.

Negu epeletan parasitoak aktibo egoteko baldintza aproposetan bizi daitezke. Egia da baldintza horiek ez direla beste urtarotetan bezain aproposak, baina ezin dugu deskuidatu.

Alberto Fernandez



Aukera ugari ditugu gaur egun arkakusoak edota garrapatak bezalako parasitoak uxatzeko. “Laner” molekulatik eratorritako desparasitazioaile mastikagarriak dira eraginkorrenak.

Dena den, kontuan hartu behar ditugu txakurraren tamaina, egunerokotasunean dituen ohiturak, maiz ibiltzen den ingurugiroa...

Badakizu Canexionen zuzentzeko gaudela, eta zain izango gaituzula zure txakurrak edo katuak behar duen horretan guztian laguntzeko eta aholkatzeko. Beraz, edozein zalantza duzula ere, gerturatu zaitez Akarregiko gure dendara.



Maskotentzako kalitatezko denda eta aholkularitza

★ Albaitaritza ★ Txakur heziketa
★ Ileaingandegia ★ Denda

Akarregi poligonoa, 10. Hernani 943 04 87 83

MUSIKA

Abenduaren 5ean etxean aurkeztuko du disko berria, Olatz Zugastik

Urriaren 25ean kaleratu zuen ‘Orion zuzenean’ diskoa musikari hernaniarrak. Biterin eskainiko du kontzertua, 2019a bukatzeko.

BAKARKAKO bosgarren diska kaleratu berri du Olatz Zugastik musikari hernaniarrak; Orion zuzenean izenburupean, urriaren 25ean argitaratu zuen.

Horrez gain, herritarrek zuzenean entzuteko aukera ere izango dute, tartean, hernaniarrek. Izan ere, abenduaren 5ean aurkeztuko du etxean, Hernanin. Biteri kultur etxean izango da hori, eta aurrerago emango dute xehetasunen berri.

Lehenengo zuzeneko diskoa

2015ean bere azkeneko diskoa, *Ur goiena ur barrena*, aurkeztu ondoren, aurreneko ekin zion Zugastik bakarlarari gisa kontzertuak eskaintzeari. Bolada horren islada da, hain zuzen, disko berri hau.

Hain justu, Orion, bere bizi-



‘Orion zuzenean’ diskoaren azala.

tokian, eskaintako kontzertuaren zuzeneko grabaketa da disko berriaren aurkezten duena. Diskoan zehar, bakarlarari moduan egindako lau lanen kantuak entzun ahal izango dira, baita hainbat euskal kantu tradizional eta Benito

Lertxundiren beste bat, Gratxina alabak kantatua.

Gratxina Lertxundi eta Zugastik berak ez ezik, Ander Ederrak, Ander Zulaikak eta Amaieur Cajaraville musikariek ere hartu dute parte diskoko abestien moldaketan. ||

■ ZIKUÑAGA HALLOWEEN

«Etxeko pasiloetan sortutakoa, auzoko festa garrantzitsuena bihurtu izana sinesgaitza da»

Hamargarren urtez ospatuko da Zikuñagako Halloween festa bihar eta inguratzen direnei ezustekoak emateko mozorroen azken ukituak soilik falta dira.

BESTE urte batez, bihar ospatuko da Zikuñagako Halloween festa, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Edonork parte har dezake, beti ere Auzo Elkarateak jarritako baldintza bakarria errespetatzen denean: mozo-rrotzea. Hamargarren urtea izango da aurtengoa, eta beti bezala izuaren labirintoak girotuko duela auzoa azaldu dute Onditz Rekondo, Pathy Navais eta Arkaitz Larrañaga auzotarrek.

Nondik sortu zen halako festa antolatzeko ideia?

Arkaitz Larrañaga: Semearen ideia izan zen, 8-9 urte zituen etxean Halloween ospatu nahi zuela esan zigun, urte hartan etxea pixka bat atondu eta pare bat susto eman genizkion haurrari. Betidanik gustatu zaio sustoak eman eta jasotzea, eta hortaz hurrengo urtean ikastolako lagunei berdina egin nahi ziela esan zigun. Gutxinaka haunditzen joan den ekimena izan da; etxeko pasiloetan sortutako zerbait, auzoko festa ia garrantzitsuenetako bat bihurtu izana guztiz sinesgaitza da, norik esango liguke guri hala festarik sortuko zenik.

Nolako bilakaera izan du labirintoak hamar urte hauetan?

A.L.: Izugarri aldatu da labirintoa. Auzoan egin genuen lehenengoa, gaur egungoarekin alderatuta oso kutrea izan zen, inolako infraestruturarik gabe sortutakoa zen, prekarioa. Mahai batzuk elkartu genituen, kartoiez estali eta argiak itzali genituen lehenengo aldi hartan. Gaur egun segurtasun pasiloak eta gelaxkak ere erakitzen ditugu, obrako punta-lekin aritzen gara lanean.

...
Hasierako urteetan auzoko umeak eta pare bat lagun elkartzen ziren, 15 bat haur edo izango ziren eta orduan Auzo Elkarateko lokal barruan egiten genuen, baina 20-25 haur el-

kartzen hasi zirenean labirintoa kanpoaldera ateratzea erabaki genuen, erosotasunagatik eta segurtasun kontuengatik.

Nola antolatzen duzue urteroko labirintoa?

Pathy Navais: Urte osoan zehar ideiak bilduz goaz, planoak eta zirriborroak sortzen ditugu eta aste horretan, infraestruturura aldetik lan handia izaten da, labirintoaren atzean astebeteko lan fisikoa dago: eskola osoak estali behar dira, aurretik egoten den tablaua desegin, labirinto guztia sortu eta behin festa bukatutakoan guztia desegin eta zegoen moduan utzi behar da.

Zergatik urtero mozorroaren baldintza?

P.N.: Lan handia dago atzetik, dedikazio eta egindako esfortzueiko errespetuagatik jartzen dugun baldintza bakarria da. Labirintora sartu ahal izateko eskatzen dena mozo-rrotua etortzea da. Ez dugu sarre-rrarik kobratzen, gure festarekin bat egin nahi duenari mozo-rro batekin gerturatzea eskatzen diogu, besterik ez. Zorionez, jendeak baldintza hori geroz eta gehiago errespetatzen duela esan deza kegu, urtero mozo-rroak landuagoak direla ikusten da eta gurasoak dagoeneko badakite haurrarenkin igarotzeko aitzakiak ez duela balio, labirintotik igaro nahi duenak badaki zer dagoen.

Jendea ikaratzea erraza da?

P.N.: Lehenengo urtetik jendea izutzea lortu dugula esango nuke, ez baita oso zaila. Musiak ere asko girotzen du, eta berez horrelako egun batean, ilunpetan, sustoak ematea ez da batere zaila. Batzuetan gehiegi ikaratu izana ere gertatu zaigu; behin ume batek urte bat igaro zuen niregana musu bat ematera hurbiltzera ausartu gabe. Eta antolatzailearen bati ere gertatu zaio sustoak ematen aritzea baina gero labirintotik igarotzeko ausar-



Aurreko urteko labirintoan benetako gaztelu bat irudikatu zuten, bere katedun ate eta guzti.

«Ahoz ahokoak duen eragina izugarria da, inolako publizitaterik egin gabe iaz 500 pertsona igaro ziren izuaren labirintotik. Hendaikatik, Tolosatik, Leitzatik etorri dira»

diarik ez izatea beldurrak edo izuak jota.

Zein da urtero errepikatzen duzuen trikimailua?

A.L.: Motozerra klasiko bat da, hori gabe ez dago Halloween festarik. Lanerako eta festarako erabiltzen dugu, eta urtero urtero ateratzen dugun arren, beti harrapatzen dugu norbait ezustean. Horri tokaren burniari mailuarekin gogor emanda sortzen den zarata gehitzen badiogu, beldurra edo izua barruraino sartzen da.

Antolatzaile moduan, zer da gehien gustatzen zaizuena?

Onditz Rekondo: Guztia antolatzeaz gain, egun horretako mozo-rroak lantzea gustatzen zaigu. Ez gara edozein mozo-rrorrek konformatzen, antolakuntzak denbora nahikorik uzten badigu beti saiatzen gara aurreko urteetako mozo-rroak hobetzen, erronka moduko bat da guretzat baina egia da labirintoaren muntaiarekin, gure mozo-rroak prestatzeko ez dugula nahi genukeen bezainbes-

te denbora.

Izugarritzko harrakasta du Zikuñagako Halloween festak, nola jasotzen duzue zuek hori?

A.L.: Festaren hurrengo egunean, argazkiak ikusten hasten garenean konturatzen gara auzora hurbiltzen den jendetaz. Harridura aurpegiak dira urtero errepikatzen direnak gure artean, auzoan geratuko zela uste genuen eta urtetik urtera jendea geroz eta hurrunagotik etortzen dela jakin dugu. Ahoz ahokoak duen eragina izugarria da, auzoan bakarrik jartzen ditugu kartelak eta inolako publizitaterik egin gabe, Hendaikatik, Leitzatik edo Tolosatik etorri den jendea ere topatu izan dugu. Duela pare bat urte, kuriositate hutsagatik kontabilizatzeko bi gailu erosi genituen eta aurreko urtean haur eta helduen artean labirintotik 500 lagun igaro zirela dakigu. Parkerainoko ilara sortzen da urtero, eta jendea labirintora sartzeko bi orduz egoten da kanpoan zain.

«Ume batek urte oso bat igaro zuen musu bat ematera ausartu gabe»

Bestalde, egun honetan auzora hurbiltzen den jende asko dago nahiz eta labirintora ez sartu hortaz, auzo osoan giro ederra izaten da eta horrek Zikuñagari ere on egiten dio. Urtero auzotarrengandik eta hurbiltzen diren guztiengandik jasotzen dugun mezu orokorra zera da: hau ezin duzue utzi.

Nola kudeatzen dituzue horrenbeste lagun labirinto barruan?

A.L.: Beldurrak ez dakizu pertsona bakoitzarengan nolako erreakzioa eragin dezakeen, eta hori arriskutsua ere izan daiteke. Dena den, segurtasuna bermatzea da gure helburu nagusia eta horretan fin aritzen gara.

Metro gutxitan antolatzaile asko gaude, eta elkarrekin komunikatuta gaude denbora guztian. Haurren bat ateratzea tokatu zaigu behin edo behin negarrez, baina horretarako ez dago arazorik labirintoko edozein puntutan baitago kanpora ateratzeko irteera ezkuturen bat. ||

■ AZAROKO KULTUR AGENDA

Tolosako abesbatzen lehiaketatik, azaroko aurreneko kultur notak

Oxfordeko 'The Korrigan Consort' emakume boskoteak abestuko du gaur 19:30etan, elizan, azaroko kultur agendari hasiera emateko.

MUSIKAREN hilabetea izaten da azaroa, hilaren 22an Santa Zezilia ospatzen dela-eta. Aurtengoa ez da desberdina izango, eta gaur bertan, Oxfordeko *The Korrigan Consort* emakume boskotearen kontzertua izango da 19:30etan Andre Maria elizan, kultur agenda hasteko. Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan parte hartzen ari dira, musika profanoaren atalean.

Bestalde, protagonismoa izango dute hil honetan, baita ere, sagardoak eta Andre Gobalarien parkearen inaugurazioak. Ohiko ekintzak ere ez dira faltako. ■



Tolosako lehiaketan kantatuta emango du kontzertua, *The Korrigan Consort*ek.

AZAROKO KULTUR AGENDA

Gaur, 19:30, *The Korrigan Consort*, emakume boskotearen kontzertua, Andre Maria elizan. Doan.

Gaur, 16:00-17:45, KZ Gunean izango da dinamizatzailea. Harremanetarako: 943 023 617 edo tutor.astigarraga@kzgunea.net.

13 arte, Azstigazte gazteentzako lehiaketara lanak aurkezteko epea. Gaia: Murgia Jauregia.

Azaroak 5, 19 eta 26, bilera irekiak, 16:45etatik 18:15etara, kultur etxean, Harituz emakume taldeak antolatua. Gaztelaniaz, emakumeentzat irekia.

Azaroak 7, 18:00, emanaldia liburutegian 3 urteko gorako umeentzat: *Ustekabeko Festa* ipuinaren kontaketa Lur Kortarekin.

Azaroak 7, 19:00, ekitaldia, kultur etxean, 2020ko udal egutegirako argazki lehiaketako sariak banatzeko.

Azaroak 8, 15, 22 eta 30, Konfiantza indartzeko tailerra, kultur etxean, Astigarragako emakume feministen talde batek antolatua. Ostiraletako saioak 18:00etatik 20:00etara eta larunbatekoa 09:30etatik 13:30etara. Doan. Izen-ematea: azti-femiak@gmail.com.

Azaroak 9, 17:00, zinea, kultur etxean: *Batman Lego*. Sarrera: 2 euro. Euskeraz.

Azaroak 11, 18 eta 25, 16:30-18:30, Gurasolagun, haurrak eta gurasoak kafe baten bueltan elkartuta, euskeraz hitz egiteko ekimena. Berdin du zein den bakoitzaren euskera maila. Doan.

Azaroak 12, 16:45, zinea, kultur etxean: *Una canción para Marion*. Doan, Harituzek antolatua. Gaztelaniaz.

Azaroak 12, 19:30, irakurketa kluba, liburutegian. Beñat Sarasola idazlearen *Deklaratzekorik ez* liburuaren inguruan, Isabel Etxeberriak gidatuta. Saio irekia eta doanekoa.

Azaroak 14, 17:00, ekitaldia, Andre Gobalarien parkean. Parkearen eta eskulturaren inaugurazioa, Maria Jose Lacadena eskultorearekin batera, eta Node taldearen dantza garaikide saioa.

Azaroak 15, 19:00, tailerra, kiroldegian, Mundarrok antolatuta. Ziklo eta Zunba master-

classak. Izen-ematea azaroaren 11, 12 eta 13an, bazkideentzat, eta 14tik aurrera, gainontzekoentzat.

Azaroak 16, 16:30-18:00, jolasak kultur etxean 4-12 urtekoentzat, Xaguxarrek antolatuta, doan.

Azaroak 16 eta 20, 16:30, ekitaldia Joseba Barandiaran plazan, Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, Gaztelekuak antolatuta.

Azaroak 16, 09:30-13:00, hitzaldia Arroitxuloko lokalean, Waldorf pedagogiari buruz.

Azaroak 17, 09:00, mendi irteera Pagoetara, Mundarrok antolatuta, Aiatik abiatuta. Izen-ematea kiroldegian: kiroldegia@astigarraga.eus.

Azaroak 17, 12:00, tailerra Andre Gobalarien parkean, haurrek klarionarekin margotzeko, Lekim konpainiarekin.

Azaroak 18, 18:30-20:00, ikastaroa kultur etxean: dantza latinoak hasiberrientzat. Izen-ematea, bikoteka hobe.

Azaroak 18, 19:30, literatur solasaldia liburutegian, Jorge Carrerok zuzendua, gaztelaniaz, Albert Camus idazlearen *La Peste* liburuaz.

Azaroak 21, 19:00, aurkezpena, kultur etxean. Sabino Cuadra Lasarteren *No os importe matar* liburu. Sanfermines 78 gogoan elkarteak antolatuta.

Azaroak 21-25, III. Sagardo Foruma, Hernaniko Orona Ideon, eta azaroaren 24an Donostiako Kursaalaren nazioarteko sagardo azoka. Sarrerak: www.sagardoforum.eus.

Azaroak 23, 20:00, ekitaldia Joseba Barandiaran plazan, Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira.

Azaroak 24, 13:00, diana eta txistu emanaldia Joseba Barandiaran plazan, Santa Zeziliaren harira.

Azaroak 28, 18:30, hitzaldia udaletxean: Energia berriztagarriak zure etxean, posible da. Gipuzkoako Foru Aldundia. Elebitan.

28 arte, kultur etxe berrirako izenak proposatzeko, kultur etxean edo astigarraga.kultura@gmail.com.

Azaroak 29, 20:30, bertso-afaria, Agin Laburu eta Iker Zubeldiarekin, Zipotzan. Txartelak: 25 euro.

■ AZSTIGAZTE LEHIAKETA

Sariak, Murgia Jauregiari buruzko lanek

Azaroaren 13ra arte aurkeztu ditzakete lanak, 12-18 urte arteko gazteek.

URTEKO bigarren Azstigazte lehiaketan lanak aurkezteko epea gerturatzen ari da. Oraingoan, Murgia Jauregiari buruzko lanak aurkeztu behar dituzte 12 eta 18 urte arteko gazteek, azaroaren 13a biano lehen. Urteko aurreneko lehiaketa apirilean bukatu zen, eta sendiari buruzko lanak aurkeztu behar ziren.

Ordukoan bezala, bi kategoriatan hartu daiteke parte orain ere: 12-14 urte artekoenak, eta 15-18 urte artekoenak. Bakarka edota taldean egin daitezke lanak, eta nahikoa izango da partaide bakarra Gipuzkoakoa izanda. Adinari dagokionez, ordea, taldekide guztiek parte hartzen duten kategoriari dagokion adin-tartekoak izan behar dute.

Egin beharreko lanari dagokionez, batetik, lanari dagokion aurkezpen idatzia aurkeztu beharko da, 15 bat lerrokoa. Era berean, 300 hitz inguruko idazlana egin beharko da. Bestalde, lanari lotutako irudia ere sortu beharko da. Azkenik, aurkeztutako lanen artean epaimahaiak aukeratzen dituen hiru, ahoz aurkeztu beharko dituzte egileek. Sariak 300 eta 100 eurokoak izango dira bigarren kategoriako irabazle eta bigarren sailkatuentzat, eta 150 eta 50 eurokoak, gazteenen kategoriako aurreneko bi sailkatuentzat.

Lanak udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira. Oinarriak, osorik, udaletxeko webgunean irakurri daitezke: www.astigarraga.eus. ■



Asteazkenean egin zuen bilera, DBHren aldeko plataformak.

■ DBH ORAIN

Urteko plangintza, giza kateari begira

Asteazkenean bildu zen Astigarragan DBH Orain! plataforma. Urteko plangintza aurkeztu zuten bertan, eta lan-taldeak osatzen hasi ziren. Aurreneko lanei heltzen hasiko dira, eta oraindik denbora badago ere, martxoaren 29an egin nahi duten giza-katea antolatzen hasiko dira. Datozen bileren berri emango dute aurrerago. ■

■ UDALA

Gizarte laguntzaile posturako, oposizioa

Udalak txanda irekiko lehiaketa-oposizio bidez beteko du gizarte laguntzaile postu bat. Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 25ean bukatuko da. Informazio gehiago 943 33 52 34 telefonoan lortu daiteke. ■

Laguntzak etzi arte, berdintasun alorrean

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak garrantzen dituzten pertsona fisiko eta elkarteek diru-laguntza jaso dezakete. Horretarako eskaerak egiteko epea azaroaren 4an bukatuko da. ■

I ASTIGARRAGA PLENOA

9.291.408 euroko aurrekontua onartuta, 2020rako

EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin onartu dira. 2019koa baino %3,99 haundiagoa da, eta gehien igo direnak izan dira transferentzia arruntak, eta hauen barruan, besteak beste, diru-laguntzak (%5,77), eta inbertsioak (%54,06).

ASTEARTEAN bildu zen udal osoko bilkura, hileko azken asteartero bezala. PSE-EEko zinegotziaren faltan, EH Bildu eta EAJko zinegotziek landu zituzten gai-ordeneko 10 puntuak. Aho batez onartu ziren gehienak, baina desadostasunak izan ziren 2020ko udal aurrekontuei hasierako onarpena ematerakoan, 2020-2023ko diru-laguntzen plan estrategikoaren inguruan eta kale izendegiaren aldaketaren inguruan.

Ekarpenak jasota, 2020ko udal aurrekontua

Plenoa irailaren 24ko akta onartzearekin hasi zuten. Absentzio batekin onartu zen. Segidan, 2020ko udal aurrekontuei eman zitzaizen hasierako onarpena, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin, eta behin GAOn (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitaratuta, jendaurrean jarriko da.

Xabier Urdangarin alkateak azaldu zuen 2020ko udal aurrekontua 9.291.408,11 eurokoa izango dela, «2019koa baino %3,99 haundiagoa. Gehien igo direnak izan dira transferentzia arruntak (besteak beste, diru-laguntzak, %5,77 igo direnak), eta inbertsioak (%54,06 igo dira).

Aurreikusitako ekimen «aipagarrienak» ere nabarmendu zituen. «EH Bildu, udal-gobernua eskuratu duenetik, lanean erabat murgildu da, eta 4 urteetako paralisaren ondoren, 2020 urtea aspalditik egiteke dauden proiektuak behingoz gauzatu eta herritarren eskaera betegabeak asetzeko urtea izan dadin esfortzua egingo du». Horrela, 2019ko gerakina eta 2020ko aurrekontua uztartuta, egingo diren hainbat lanen berri eman zuen. Auzo eta landa eremuari dagokionez, Perurenako auzo-elkarteak egokitu eta frontoiko argiztapena berritu; landa eremuko garraio zerbitzua jarri; baserri atarrietako argiteria eta seinaleak jarri eta diseinatu; hiritartzeak landu Santiomendi kaxkorako, Emakumeon Plazarako eta Anuskarako; eta herri bideen berrikuntza proiektua eta Arrobotxuloko igogailuarena idatzi. Kirol instalazioei dagokionez, kiroldegiko aireztatze sistema aldatu, igerileku txikia haunditu eta bizikleta berriak jarri; Txomifenea frontoira da-



Aho batez onartu ziren puntu gehienak, baina ez udal aurrekontuak eta diru-laguntzetarako plana.

Aho batez onartu ziren udal langileen soldata igoera edota Emakumeon Plazaren berrurbanizazioa.

tozen urak jasotzeko lanak eta frontoia berritu; pump truck pista egin; eta kiroldegia berritu eta igerileku estalia egiteko bideragarritasuna aztertzeke proiektua egin. Hezkuntza arloan, herri eskola haunditu, DBHrako Anibarko lurrak hiritartzea eta Kiriketa Haur Eskola berriaren obra egitea. Kulturaren, berri, kultur etxe berria hornitu eta egitura berria prestatzea, «kostua uste baino haundiagoa izango baita». Azkenik, azpimarratu zuen sail batzuk indartuko direla udalean: berdintasun teknikariaren lanaldia haundituko da lanaldi osora; berdin, enplegu eta komertzio teknikariarena; eta baserri batzordea berreskuratuko da. Euskera lantzeko Topagunearekin harremana estutuko dela ere zehaztu zuen.

Hori guztiaz gain, alkateak nabarmendu zuen herritarren eta alderdien ekarpenak jasotzeko egindako «ahalegina». Hain zuzen, EAJk egindako 12 alegazioetatik 5 onartu dira, 3 osoki eta 2 partzialki. Horren

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2023)

GEHITU ETA ALDATU DIREN DIRU-LAGUNTZAK (eurotan):

- Hutsik dauden etxeak alokairu sozialeko erregimenean alokatzeko laguntzak: 30.000 euro.
- Tokiko merkataritza sustatzeko laguntzak: 7.000 euro.
- Astigarragako emakumeen inguruko historia jaso, landu eta herritarren eskura jartzeko ikerketa beka: 8.000 euro.
- Nazioarteko lankidetzarako: 60.300.
- Norberto Almandoz musika eskolarekin hitzarmena: 126.748,55.
- Gazte Asanblada: 7.000.
- Herri Eskolak frontoia erabiltzeko: 190.
- DYArekin lankidetzaren hitzarmena kultur eta kirol jardueretan zerbitzua emateko: 3.000.

EZABATU DIREN DIRU-LAGUNTZAK:

- Sagardotegietarako autobus zerbitzua: 7.000 euro.
- Santiomendi auzotarrentzako garraio zerbitzua: 12.000 euro.
- Alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitza libreak alokatzeko laguntza: 5.000 euro.
- DYArekin lankidetzaren hitzarmena: 3.000.

inguruan, Nerea Zusberro, EAJko bozeramaileak «zalantza» agertu zuen, ekarpenak egiteko epearen inguruan, EH Bilduk ez zu-

- Erroakekin lankidetzaren hitzarmena: 22.875.
- Auzolan Berri programan Gozogintza proiekturako kontratazio laguntzak: 30.000.

MANTENDU DIREN DIRU-LAGUNTZAK:

- Turismo alorrean, Sagardun.
- Berdintasun alorrean, Harituz, eta lehiaketa askean esleitutako programak.
- Euskera arloko guztiak.
- Gizarte Zerbitzuetan, Gure Izarra, Galtzaur, lehiaketa askean esleitutako ekintzak, zerga eta udal tasetarako laguntzak eta harrera familietarako laguntzak.
- Hezkuntza arloan, haur-eskolako hobariak, garraio laguntzak, eta Herri Eskolarekin lankidetzaren.
- Gazteria sailean, Azstigazte lehiaketarako sariak.
- Kirol arloan, eskola kirola kudeatzeko laguntzak, igeriketa kanpainarako laguntzak, Mundarro, kirol ekintzetarako laguntzak, kirol programetarako laguntzak, eta kirolarientzako laguntzak.
- Kultur eta jai arloan, Aitzondo, Astigar, Txiriskila eta herriko eta auzoetako jardueretarako laguntzak.

ela errespetatu irizita. Idazkariak eta EH Bilduko Andoni Gartzia zinegotziek azaldu zuten «udal gobernuaren boron-

datez ezarritako epea» zela, «legeak ez duelako eskatzen».

Diru-laguntza plana, hiru urterako

Hurrengo puntuan 2020-2023 urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuten berriro, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin.

Zusberrok adierazi zuen kontrako botoa emango zutela jeltzaleek, ez zeudelako ados, besteak beste, sagardotegietarako autobus zerbitzua kentzearekin. Alkatearen esanetan, zerbitzu hori «erabiltzaileek edo sagardotegiek ordaindu beharrekoa da». Era berean, nabarmendu zuen ia milioi bat euro bideratuko zirela diru-laguntzetara.

Aho batez, hots kutsadura eta soldata igoeren alde

Gainontzeko puntuetan, desadostasun bakarra kale izendegiaren aldaketak sortu zuen. Tranbia ibilbide ondoan sortutako kale berriari Izaskun kalea deitzeko proposamenak, hain zuzen, Zusberroren esanetan ez zelako kultur batzordetik pasa.

Aho batez onartu ziren gainerakoak: aurrekontuen legeak jasotzen duenaren arabera, udal langileen 2019ko soldatari dagokion azken igoera onartzea; hots kutsaduraren aurka babesteko ordenantzen 38garren artikuluar aldaketa puntuala egin eta establezimenduetan ekipo kontrolatzaileak jartzeari; Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarean jarraitzeko akordioa berritzea; Emakumeon Plaza berrurbanizatzeko proiektuaren 1 eta 2 faseetarako lehiaketa martxan jartzeari; Puztuetako ur depositotik Zarkumendegira eta garraio hirira ura banatzeko obra proiektuari; eta Kataluniako Procésaren aurkako urriaren 14ko epaiaren inguruko mozio bateratua. Bi alderdiek azpimarratu zuten elkarretaratzea ere elkarrekin egin izana.

Azkenik, galdera eta eskarrien puntuan EAJk adierazi zuen hezkuntza batzordea ez dela uztailaz gerotik bildu, eta Herri Eskola haunditzeko proiektuaren berri jakin nahi zutela. Alkateak argitu zuen azaroren egitea espero dutela. II

■ ELIZA



Santu Guztien egunean kanposantuko mezetan jende ugari biltzen da.

Hildakoak gogoan, gaur eta bihar ere

Santu Guztien eguna pasata ere, beste bi meza egingo dira gaur eta bihar. Gaur, hilerrian, 11:00etan. Bihar, parrokian, 10:30etan.

EURIAK blaitu zuen atzoko Santu Guztien eguna. Dena den, astigartarrek gogoan izan zituzten falta dituzten senide eta lagunak, eta lorez jantzi zuten hilerria, eguraldiak goibeldutako giroa kolorez bustiz.

Hildakoen eguna pasa da, baina hitzordu gehiago ere izango dira gaur eta bihar, haien omenez. Gaur bertan, kanposantuan egingo da haiek oroitzeko meza, goizeko 11:00etan hasita.

Bihar, bestalde, parrokian egingo da faltetako meza, goizeko 10:30etan, eta hau, familiarren meza ospatzeko ere izango da. Honekin borobilduko da Santu Guztien egunari lotutako asteburua. ■

■ GAZTE ASANBLADA

Pala saioaren ondoren, Upelio eguna

Mungia eta Vazquez izan dira pala txapelketako irabazleak, baina giro ona izan da irabazle nagusi. Abendurako Upelio eguna antolatzen hasi dira.

ESPERO baino partaide gutxiago izan da Gazte Asanbladak antolatutako pala txapelketa mistoan, baina «giroa ona» eta «partaideen sentsazio positiboa» nabarmendu dituzte antolatzaileek. Hala ere, «maila oso ona» izan dela ere gehitu dute, eta noski, izan da irabazlerik: Mungia eta Vazquez izan dira txapelketaren eta herriko taberna batean otordu bat egiteko txartela jaso dute sari. Finala «oso orekatua» izan zen, eta «tentsioduna, azken momentura arte ezin baitzen jakin nor gailenduko zen».

Ostiral gauean eta larunbat goizean jokatu ziren partiduak, eta denetan izan zen giroa oso ona. Hala ere, «herriarrik gerturatu ez izanak pena» eman dio Gazte Asanbladari. Gauzak horrela, datorren urterako berriro ere txapelketa antolatzeko asmoa azaldu dute, «beste formatu batean, ea jende gehiago animatzen den, gazte zein ez hain gazte».



Hainbat bikote mistok hartu zuen parte pala txapelketan.

Altsasuko gazteak, gogoan

Finala jokatu, larunbatean autobusa atera zen herritik Iruñeara, Altsasuko auziperatuen aldeko elkarretaratzerara. «Besteetan ez bezala, gazte asko elkartu» zen autobusean.

Bueltakoan, Zipotzan bukatu zuten, «giro oso goxoa».

Hurrena, Upelio Eguna

«Gehiagorako gogoz» ere geratu dira, eta horregatik, hain zuzen, abenduaren 14rako Upelio eguna antolatzen hasi direla ere jakinarazi dute. Festa giroan pasako duten egun hori, 80eko hamarkadan girotua egongo da. ■

■ EUROPAKO ONDAREAREN JARDUNALDIAK



Pisoiekin sagarra txikitzen ikasi zuten hainbatek, Petritegin.

Europako ondarearen parte, Astigarragako sagardoa

Sagardogintzari lotutako kultura eta lana ezagutzeko aukera izan da, Petritegin.

ATE irekien jardunaldiak egin zituzten Petritegi sagardotegian, pasa den igandean, Europako ondarearen jardunaldien barruan. Aurtengoan, aisialdiari, kirolari, jolasari eta jaiari lotutako ondarearen berri eman nahi izan zaie herriarrei, Gipuzkoako Aldundiak antolatzen dituen jardunaldietan.

Horri lotuta, sagardogintzari lotutako lan mundua eta jai giroa ezagutzeko aukera izan zuten igandean Petritegira gerturatu zirenek. Besteak beste, kizkiarekin sagarrak bildu edota pisoiekin hura zantpatzen ikasi zuten, eta era berean, muztioa edo zizarra, hau da, sagar zukua dastatu ahal izan zuten, festa giroan. ■

■ XAGUXAR

Negulekuetarako izena, azaroan

Eguberrietako opor egunetarako Negulekuak antolatu ditu Xaguxarrek, 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n eta urtarrilaren 2 eta 3an egingo dira, 10:00etatik 13:00etara. Izena, berriz, azaroaren 8tik 15era eman beharko da 943 33 50 64 telefonoan edo info@xaguxar.org helbide elektronikoan. ■

Larunbat arratsaldea, jolaserako

Negu garaian, hilabetearen behin, tailer eta jolas saioak antolatuko ditu aurturaren Xaguxar aisialdi taldeak, 4 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta. Hil honetan, azaroaren 16an izango da aukera, tailer, jolas edota eskulanekin ondo pasatzeko, haur-hezitzaileek gidatutako saioan. Kultur etxean egingo da, doan, 16:30etatik 18:00etara. ■

■ EAJ-PNV

Gabonetako loteria, aukeran

Dagoeneko, Gabonetako loteria saltzen hasia da EAJ alderdia. Norberto Almandoz plazan, Correos ondoan daukan bulegoan erosi daiteke, astelehen eta ositzaletan, 19:30etatik 20:30etara, eta larunbatetan, gaur bertan, 12:00etatik 13:30etara. ■

■ 1959AN JAIOTAKOAK

Bazkaritarako deialdia, 59an jaiotakoei

Azaroaren 17rako bazkaria antolatzen ari dira 1959 urtean jaiotako astigartarrak. Urte horretan jaiotako guztiei irekitako deialdia da, eta izena emateko, Roxari deitu behar zaio: 661 237 026. ■

■ GOIZUETA JUBILATU FESTA

Jubilatuen festak girotuko du herria asteburuan zehar

Truk eta Mus Txapelketak emango dio hasiera gaur festari 16:00etan, Umore Onan. Bihar egun osoko plana dago.

GOIZUETAN ohiturei eusten zaie urtetik urtera eta asteburu honetan aspaldian ospatzen den Jubilatuen Festa izanen da. 65 urtetik goitikoentzako antolatzen du Umore Ona elkarteak eta bi egunez izanen dute zerekin gozatua. 200 goizuetar dira guztira, 65 urtetik goitikoak; eta gonbidapen bana jaso dute etxean. Izena eman behar zuten aste honetako asteratera arte bazkaria joateko.

Gaur arratsaldean hasiko dira ekitaldiak, Truk eta Mus Txapelketak jokatuko dituzte, elkartean bertan, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Eta bihar, egun osokoa izanen da plana. Aurrena, pilota partiduak jokatuko dira frontoian, 10:00etan hasita. Umore



Umore Ona elkartean egingo da, urtero bezala, bazkaria.

Ona Txapelketaren laugarren edizioako aurreneko partiduak izanen dira, hain justu. Ondoren, 11:00etan, 65 urtetik goitikoentzako meza izanen da elizan.

Eta handik elkartera mu-

gituta borobilduko dute festa: bazkaria (arrain zopa, legatza, solomilloa, tarta txanpainarekin, kafea eta likoreak), eta Luix Elizegiren musika emanaldia, «aspertu arte». ||

■ EREÑOTZU UDAZKEN KULTURALA

Ogi tailerrarekin hasiko da azaroa

Datorren ostiralean eta larunbatean ogi tailerra egingo dute. Astelehena da dastaketarako izena emateko azken eguna.

EREÑOTZUKO udazken kulturalak aurrera jarraitzen du urriko egitaraua bete eta gero, gainera arrakastarekin aurreko ostiralean eman zen xaboi tailerrarekin gertatu bezala. Auzotarrak animatu ziren eta oraindik ere aukera dago azaroko ekitaldietan parte hartzeko.

Datorren ostiralean eta larunbatean, azaroaren 8an eta 9an, ogi tailerra emango da eta bigarren saioko bazkarian eta ogi dastaketan izenemateko azken eguna astelehena, azaroaren 4a da, Auzo Udalean bertan. Txartelak 15 euroan salgai daude. Bi egunetan zehar ogia nola egin erakutsiko dute eta azalpen desberdinak emango dituzte.

Ostiralean ogi tailerraren lehenengo saioa hasiko da, 17:00etan. Bertan, Eguzkileire okindegiaren eskutik, ogi ekologikoa nola egin ikasi ahal izango da Ur-Mian. Ondoren, 19:30etan bideo emanaldia egongo da Ludotekan (denontzat irekia).



Xaboi tailerra Josune Eizmendi eta Izaskun Gurrutxagak eskaini zuten.

Egitaraua

Azaroak 8: Ogi tailerra Eguzkileire okindegiaren eskutik. 17:00etan ogi ekologikoa nola egin ikastaroaren 1. saioa Ur-Mian. 19:30etan bideo emanaldia Ludotekan (denontzat irekia).

Azaroak 9: Ogi ekologikoa nola egin ikastaroaren 2. saioa, Ur-Mian.

Ondoren, ogi dastaketa eta bazkaria. Txartelak 15 euroan salgai, Auzo Udalean. Apuntatzeko azken eguna: azaroak 4, astelehena izango da.

Azaroak 16: Demode Quartet kontzertua. Lekua: Elizan. Ordua: 19:30.

Azaroak 29: Black is beltza pelikula. Lekua: Ludotekan. Ordua gaueko 22:00etan.

Larunbatean, hilak 9, ogi ekologikoa egiten ikasteko bigarren ikastaroa emango da Ur Mian. 08:00etan hasiko da

eta goizean zehar luzatuko da eguerdiko 13:30ak arte. Ondoren egingo dira ogi dastaketa eta bazkaria. ||

■ GOIZUETA SUHILTZAILEAK



Argazkia: IBON ELIZEGI

Ibon Elizegi eta Nafarroatik joandako suhiltzaileak.

Lege bateratu baten alde, Madrilen

Goizuetako suhiltzaileak Madrilen elkartu ziren beste lurraldeetako 10.000 suhiltzaileekin batera urriaren 19an. Bertan, beraien lan eskubiden alde eta suhiltzaileen lege bat aldarikatu zuten. ||

■ GOIZUETA MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

Hondakinei aukera berria emateko tailerra

Berrerabiltze, berreskuratze nahiz zaharberritzeari buruz ariko dira bigarren tailerrean, ostiralean, eskolako jangelan.

DAKIENAK ez dakieneri erakutsi izenburupean tailer bikoitza antolatu du Merialdea Mankomunitateak eskualdeko herrietan, hondakin gutxiago sortzeari buruz. Urrian egingen aurreneko tailerra, eta pasa den ostegunean egingen zuten bigarrena Aranon eta ostiralean, azaroaren 8an egingen dute Goizuetan.

Eskolako jangelan izanen da Goizuetako saioa, arratsal-

deko 18:00etatik 20:00etara.

Tailerra irekia da, eta bertan, landuko dute nola berreskuratu edota zaharberritu, hondakin izateko zorian daukagun zerbait: altzari txikiren bat, kartoizko, kristalezko edo plastikozko zerbait, oihal zatiren bat...

Elkarri lagunduko diote, eta bakoitzak duen jakintza besteekin konpartituko da daorren ostiralean. ||

■ GOIZUETA BINAKAKO BAKARRIZKETA



Argazkia: GOIZUETAKO UDALA

Mirari Martiarena eta Idoia Torregerai izan ziren bakarlariak.

Algarak eutsi ezinik, bakarrizketekin

Bakean dagoena, bakean utzi emanaldia eskaini zuten Goizuetako eskolako jangelan aurreko larunbatean Idoia Torregerai eta Mirari Martiarenak. Hurbildutakoak algara batean jarri zituzten euskera eta generoaren inguruko gaiak jorratuz, beti ere umorez. Makina bat kontu ukitu zituzten: euskalkiak, onomatopeiak, amatasuna, gorpuztasuna edota kristalezko sabaia, besteak beste. Konturatzerako pasa zen ordubetea. ||

■ GOIZUETA ABESBATZEN KONTZERTUA



Argazkia: FELIX LOIARTE

Emanaldiaren aurretik denak elkartu ziren zubian talde argazkia ateratzeko.



Argazkia: FELIX LOIARTE

Umore Ona eta Kantuz abesbatzetako kideak elizan kantuan.

Umore Ona eta Tuterako Kantuz abesbatzek Nafarroa batu zuten

Goizueta eta Tuterako abesbatzen doinuen ohiartzunak entzun ziren Goizuetako elizan eta ondoren otordua dastatu zuten.

NAFARROAKO iparraldea eta hegoaldea kantuz lotu zituzten pasa den igandean Goizuetako Umore Ona eta Tuterako kantuz abesbatzek. Beraien doinu eta kantuez gozatzeko aukera izan zen eta sortu zuten

ohiartzuna oraindik ez da joan.

Goizuetako elizan eskaini zuten kontzertua eta antolatzailerek aurretik esan bezala «abesti ederrak entzuteko aukera» izan zuten bertaratu-

takoek.

Goizuetako eta Tuterako abesbatzek bat eginda giro beroa sortu zen eta behin ikuskizuna amaitu eta gero denak batera otordu batez gozatu zuten Umore Ona elkarteetan. ■



Argazkia: FELIX LOIARTE

Abesbatzetako kideek otordua eduki zuten emanaldia eta gero.

■ GOIZUETA GARAGARDO FESTA



Umore Ona bete egin zen Garagardo Festarako 80 txartel saldu eta gero.

Jendetza elkartu zen Umore Onan, Garagardo Festan

Garagardo Festak estreinaldi ezin hobea izan du Goizuetan. Pasa den larunbatean Umore Ona elkarte lepo bete zen herritar batek antolatu duen lehenengo edizioan. Arrakasta aurretik ziurtatuta zegoen salgai jarritako 80 txartelak berehala agortu ziren eta, epea baino astebete lehenago. Horrelakoetan izaten den afari tipikoaz eta garagardoaz gainera, musikaz ere gozatu zuten bertaratuek, konpletua izateko aurreneko Garagardo Festa hau. Ziur ez dela azkena izanen, baina toki haundiagoa bilatu beharko dute, hurrengorako! ■

■ EREÑOTZU BAZKARIA

Eskolan ibilitako emakumeen bazkaria

Datorren urriaren 9an Ereñotzuko eskolan ibilitako emakumeen bazkaria antolatu da Hernaniko Errioguarda jatetxean. Azaltzeko asmorik ez duenak 652 715 075 telefono zenbakira deitu dezake. ■

■ ARANO ERAKUSKETA

'Baratze kritikoa' erakusketa jarriko da

Astelehenetik azaroaren 18ra bitartean, *Baratze Kritikoa* erakusketa ikusi ahal izanen da Maisuenean. Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Leitza, Goizueta, Arano eta Aresoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sustatu du erakusketa. ■

■ GOIZUETA NEKAZARITZA

Lehen sektorea bultzatzeko lantaldea

Goizuetan elikadura burujabetza landu, bertako produktuak suspertu eta bestelako kontsumo eredu bat sustatzeko asmoz taldea martxan jarri da. Hainbat herritar, Goizuetako Udaleko eta Cedema Garalur elkarteak ordezkariek bildu dira taldean. Inkestak egin dira eta horien erantzunak bildu eta informazioa lehendabiziko sektorea dinamizatu eta herriarentzat plan estrategiko bat egiteko erabiliko dute. Bestetik Cedema Garalur elkarteak *Nafarroako Mendialdea - LGP, 2014-2020* programako landa garapenerako proiektuen laugarren deialdia ireki du. Deialdi berri honek 647.181,86 euro izanen ditu, eta 2019ko azaroaren 25era arte egonen da zabalik. Gizarte eta ekonomia garapenean lagunduko duten proiektuak finantzatzeko ditu. ■

■ HERNANI ERRUGBIA - EUSKAL LIGA

«Aurtengo helburua taldea egin eta formatzen jarraitzea da, ez dadila partidu bakoitza kalejira bat izan»

Denboraldi hasierako balorazioa egiteko tarte hartu du Landarbaso errugbi taldeak, atsedenerako asteburu honetan. Bai; Hernaniko neskek Ordiziakoekin elkartuta sortu dute, eta Atletico eta Txingudiko jokalariek batzuk ere badira.



Astean bi-hirutan fisikoa eta teknika lantzeko entrenatzen dute neskek Landaren; astean behin aritzen dira Ordiziarekin.

BAJA dezente izan ditu aurten Hernani Errugbi Elkarteko emakumezkoen taldeak. «Batzuk Erasmus egitera, ikastera edo lanera kanpora joan dira... Zazpi-zortzik utzi dute. Denboraldi hasieran ikusi genuen eskas ibiliko ginela. Pentsatu genuen 12ko errugbian izena ematea ere. Izan ere, 15ekora jokatzeke, 30 jokalariek behar dira, lesioak eta abar tarteko, nahikoa jende izateko; deialdia 23 jokalarikoa da», azaldu dute Asier Gaztañaga eta Joxe Krutz Elozegi entrenatzaileek. «Ez genekien nola egin».

Baina egin dute. Landarbaso taldea sortu dute. «Gu 20 bat baginen, eta Ordiziak 15 inguru zituen, eta proposatu ziguten elkartzeko. Txingudiko 2-3 jokalariek ere baditugu, batzuetan Atletico-koak... Gipuzkoako erreferente bezala, Landarbaso jarri diogu izena».

Tragediarik ez

Dagoeneko lau dira jokatu dituzten partiduak. Aurrenekoa, Bera-Beraren kontra (32-5). «Irabazi zitekeen, baina aurreneko partidua izanda, urduritasuna nabari zen». Riojari, espero bezala, irabazi egin zioten gero (34-19), eta Getxoren aurrean, galdu (0-87). «Goian ibilitako taldea da, eta bi fitxaje ere baditu. Beste maila bat da eta nabari da». Lehengo asteburuan, berriz, Durangoren kontra 14-18 irabazi egin zuen Landarbasok. Beraz, hasieratik jarri duten helburutik ez dira urruti hasi. Izan ere, 10 talde dira Euskal Ligan, eta aurreneko bueltan lehendabiziko bost artean geratzen direnak

«Gure borroka Gaztedi, Uni Bilbao eta Bera-Beraren aurkakoa izango da, bereziki»

«Helburua da bosgarren geratzea, maila horretan jokatzen jarraitu ahal izateko»

izaten dute maila mantendu eta Euskal Herriko txapeldun izateko lehitzeko aukera, baita Espainiako Ohorezko A Mailara igotzeko ere; talde horren barruan sartzeko ahalegina egin nahi du Landarbasok, eta Rioja eta Durangori irabazi izanak erakusten du bide onetik dijoala. Gernikaren aurkakoa izan daiteke irabazteko beste partidu bat. Eta datorren asteburuan Gaztediren aurka Gasteizen jokatuko dutena, giltzetako bat. «Unica, Getxo eta Eibar nabarmendu egingo dira. Gure borroka Gaztedi, Uni Bilbao eta Bera-Beraren aurkakoa izango da, bereziki».

Getxoren aurkako porrotari dagokionez, tragedia izan zenik ukatu dute. «Aurreneko zatia ondo joan zen. Defentsan ondo aritu ginen, eta erasoan ez zitzaizkigun jokaldiak nahi beza-

la atera, baina beti dago lantzeko zerbait. Azkenean partidua ez bada desastre hutsa, nahikoa. Ondo ateratzen badira jokaldi batzuk, ez da tragedia».

Erdi-parean ibiltzea, helburu egingarria

Egoeraren jakitun, gogotsu, baina oinak lurrean dauzkala dago taldea. «Espero dugu sailkapenean erdi parean ibiltzea. Azkenak geratuta ere, ez da ezer gertatzen. Baina helburua da bosgarren geratzea, maila horretan jokatzen jarraitu ahal izateko. Horrek, maila horretan aritzera behartuko gaitu. Interesatzen zaigu».

Hori lortzeko, taldea osatu berritan, «konjuntua egitea» dute lanik haundiena. Ordiziako Gurutz San Miguel ere izaten dute laguntzaile, horretan. Denboraldi hasiera, behinik behin, ez da hain makala izan.

«Hiru bat egunetan entrenatzen du Hernanik. Beste egun pare batetan Ordiziak. Alderdi fisikoa eta tekniko lantzen ditugu horrela, ondo. Baina konjuntua egitea da zaila, astean entrenamendu bakarrarekin». Ari dira, hala ere, aurrera eginen. «Aurtengo helburua taldea egin eta formatzen jarraitzea da, ez dadila partidu bakoitza kalejira bat izan. Jokatzen da irabazteko, baina gure helburua ez da irabaztea. Oraingoan, denak ateratzen dira zelaira. 34 jokalariek izanda ere, momentuz, inor ez da deialdiz kanpo geratu.

Bigarren bueltarako lortuko bagenu nahikoa jokalariek...».

Hirugarren denbora, bere lana egiten

Hortxe utzi dute gonbidapena, entrenatzaileek. Taldeko giro ona ere nabarmentzen dute, gainera, jokalariek animatzeke. «Jokalariek motibazioa badute, Getxokoari bezalako emaitzei buelta emateko. Animoso daude neskak, pozik. Proiektu berria da, baina giro ona, feeling ona egin dute. Hirugarren denbora ezinbestekoa izaten da horretan, eta ondo dioa!».

Denak elkartuta entrenatzeko zailtasunak sortu arren, irabazten atera direla nabarmentzen dute. «Taldea orekatu dugu. Guk aurrelari gehiago genituen, eta Ordiziak hiru laurdenak. Zorionez, Ordiziarekin elkartuta, denetik daukagu. Baina denetik behar da!».

Emakumezkoen errugbia, «goraka»

Ateak denentzako irekiak daukate, hain zuzen. «Oinarria egina daukatenez, hobetu egingo dute. Falta dutenek, landu. Guk orain gazte asko daukagu, joan direnak beteranoak izan baitira. Nerabeak ditugu gehienbat. 2010-11n hasi zen nesken taldea, eta ordutik pare batek jarraitzen dute. Beste lauzpabost eskolatik igo dira, harrobitik. Beste batzuk urte batzuk darazkitez, edo berriak dira... 16 urtez azpikoetan badaude beste bost, mutilekin ari direnak. Zer

Euskal Liga 19/20

- 5. jardunaldia**, Gaztedi-Landarbaso, hilaren 10ean, 11:00etan Gasteizen.
- 6. jardunaldia**, Eibar-Landarbaso, Lakuako zelaian.
- 7. jardunaldia**, Landarbaso-Uni Bilbao, Kote Olaizola miniestadioan.
- 8. jardunaldia**, Landarbaso-Gernika, Nafarroako Unibertsitatean.
- 9. jardunaldia**, Landarbaso-La Unica, Kote Olaizola miniestadioan.

edo zer badator, baina itxoin egin behar da oraindik. Eta gero, hutsunea dator...».

Hori horrela, taldea gaztea denez, «ibilbidea baduela» uste dute. «Iazko taldea mantendu izan bagenu, aukera izango litzateke 2-3 urtera talde sendoa izateko. Orain ere helburua hori da, ahal den ondoen formatu, eta talde berdina edo antzekoekin jarraitzea».

Etorkizunera itxaropentsu begiratzen dute. «Nesken kirola ez da erraza, futbola kenduta, ibilbide luzea egin baitu. Eta errugbiak, gainera, fama du mutilen eta astakirtenen kirolarena. Baina neskek erakutsi dute egin dezaketela, eta mundu mailan, gainera, ikaragarriko maila dute. Espainian, mutilak baino hobeto ari dira neskak 7koan. Euskal Herrian, berriz, orain 3-4 urte 5 klub bakarrik ginen, eta hiru urtetan bikoiztu egin dira; 10 klub gara. Goraka doa. Zer edo zer ondo egingo genuen!». ■

■ HERNANI ERRUGBIA

Alcobendas sendoa bisitatuko du Ohorezko Mailako taldeak

Las Terrazasen jokatuko dute bihar eguerdiko 12:30etan. Madrildarrak hirugarren dira sailkapenean eta hernaniarrak azkenak.

KIROL ekitaldi gutxiago dago asteburu honetan Santu Guztien eguna dela eta, baina Ohorezko Mailako Hernani taldeak ez du atsedunik izango. Aurreko asteburuan Burgosen aurka Landaren jokatu eta gero bihar Madrilera, Alcobendas herrira, egingo du bisita Lexus Alcobendasen aurka jokatuko.

Partidua eguerdiko 12:30etan hasiko da, Las Terrazas zelaian, eta norgehiagoka zaila dute aurretik Patrick Polidorik zuzentzen duen taldeak. Alcobendaseko taldea pasaden urtean hirugarren sailkatu zen eta Copako garailea da.



Hernani eta Burgosen arteko azkenengo partidua.

Aurten ere hirugarrenak dira sailkapenean Valladolideko bi talde boteretsuen atzetik.

Hernaniren egoerak ez du zer ikusirik. Oraingoz jokaturiko sei partiduak galdu ditu eta Las Terrazas ez da lehenengo garaipena lortzeko lekurik erosoena. Hala ere, hernaniarrak saiatuko dira. ■

ko sei partiduak galdu ditu eta Las Terrazas ez da lehenengo garaipena lortzeko lekurik erosoena. Hala ere, hernaniarrak saiatuko dira. ■

■ HERNANI FUTBOLA

Hernaniko Euskal Ligako neskek 1-2 galdu dute Zarautzen aurka

Hernani eta Astigarragako talde nagusiek atzo jokatu zituzten euren partiduak eta gaur harrobiko talde batzuk besterik ez dute jokatu.

ASTEBURUKO jardunaldia egun bat aurreratu zen eskualdeko hiru talde nagusientzako. Hernaniko neskek Zarautzen aurka jokatu zuten atzo Zubipen eta emaitza 1-2koa izan zen zarautzarren alde. Ondoren, Hernaniko mutilen txanda izan zen. Ohorezko Erregional taldeak Aretxabaleta zuen aurkari. Preferente mailan Hernanik 1-1 berdindu zuen ostegunean Urnietan eta atzo Mundarrok etxean jokatu zuen Gure Txokoaren kontra. ■



Hernanik Zarautz izan zuen atzo aurkari Zubipen.



Aste osoan zehar proiektio ezberdinak ikusteko aukera izango da, Biterin.

Mendizale Astea bueltan da

Astelehenean hasiko da Mendizale Astea, eta helduentzako zein gaztetxoentzako ekitaldiak izango dira.

AURTENGO Mendizale Astea astelehenean hasiko da, eta ekitaldi ezberdinak izango dira azaroak 4, 5, 6, 7, 8 eta 17an, Hernaniko Mendiriz-Mendi Elkartearen eskutik.

Helduei zuzendutako proiektio batekin emango zaio hasiera aurten, *Eskia argentina, Japonia eta Auñamendietan* ikus-entzunezkoarekin. Jon Sasigain, Aitor Zabarte eta Aitzol Mendizabalek Pirineotatik hasi eta Andeetan eta Japonian barrena dauden eskiatzeko leku ezberdinak ezagutaraziko dituzte, haien bizipenak partekatuz.

Ekitaldi gehienak helduen interesekoak izango diren arren, etxeko txikienezako ekimen bat ere izango da. Azaroaren 8an proiektio berezi bat eskainiko da 18:00etan Biteri Kultur Etxean, gaztetxoenen irteeretako argazkiak ikusteko. Proiektioa bukatutakoan, aurtengo gaztetxoentzako dominak banatzeari ekingo diote, eta hauek izango dira domina eskuratuko duten 31 gazteak: Xuban Adarraga, Ekin Albo, Oier Albo, Saioa Apolaza, Araitz Apaolaza, Oier Arrondo, Beñat Azkarate, Garbiñe Del Valle, Asier Eizagirre, Ekain Eizagirre, Irune Eizagirre, Ekhi Fernandez, Nora Fernandez, Maddi Galarraga, Libe Galarraga, Intza Goñi, Manex Goñi, Asier Illarriamendi, Inge Iradi, Xare Iradi, Itxaso Lasa, Intza Lasa, Mara Perez, Ekain Rezabal, Miren Rodriguez, Sarai Royo, Adur San Emeterio, June San Emeterio, Garazi Zarallo, Oihane

2019ko Mendizale Astea

4. Astelehena, Jon Sasigain, Aitor Zabarte eta Aitzol Mendizabalen *Eskia Argentina, Japonia eta Auñamendietan* ikus-entzunezkoa.

5. Asteartea, «Biziminez» dokumentala. Partaidea: Josu Iztueta.

6. Asteazkena, Club Vasco de Camping Elkartearen *CVCEPHOTO 5 urte, Naturak argiari zentzua ematen dihonean*.

7. Osteguna, Unai Goikoetxearen *Japonia* lana.

8. Ostirala, 18:00etan gaztetxoentzako proiektio berezia, haien irteerak ikusteko eta jarraian dominak banatuko dira.

8. Ostirala, XL. Argazki Lehiaketa eta sari-banaketa. Ondoren elkartearen urte osoko jardueren proiektioa.

*Gaztetxoena ez, beste ekitaldi guztiak 19:30etan izango dira, Biteri kultur etxean.

Zubeldia eta Aihotz Zumeta. Haurren proiektio berezia eta domin banaketa kenduta, gainontzeko proiektio guztiak Biteri Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19:30etan. Aurtengo Mendizale Asteari amaiera emateko, azaroaren 17an irteera bat antolatu da, Bazkide eguna dela aprobetxatu eta hori ere ospatzeko: Lana Bailara-Lokiz mendilerroa ibilaldia egingo da egun horretan. ■

EUSKARALDIAREN IKERKETA "USURBILGO ERANTZEN AURKEZPENA" azaroak 6, ASTEAZKENA, 18:00 Potoxaneko DOAN	SOLASALDIA "Jasone Anakistekin, Hunta taldeko abeslaria" azaroak 12, ASTEARTEA, 19:30 Suteki DOAN
DANTZA "ORBE JAUSIA emanaldia" Orbealdi Dantza Taldea azaroak 8, OSTIRALA, 19:30 Suteki SARRERAK	POESIA ERREZITALDIA "Ugaitz Agirre-ren poesia" azaroak 15, OSTIRALA, 19:30 Suteki DOAN
KALEJIRA-BERTSO BAZKARIA "Naiaren Lujanbela eta Iger Eizaga bertsoak" azaroak 9, LARUNBATA, 12:30 Mikal Laboa plazatik SUTEKI SARRERAK	ANTZERKIA "Tabernaria" azaroak 16, LARUNBATA, 20:00 Suteki SARRERAK
KONTZERTUA "IZAK GARDENAK" azaroak 10, GANDIA, 19:00 Suteki SARRERAK	PELIKULA "AGUR ETXEBESTE" azaroak 17, GANDIA, 19:30 Suteki SARRERAK

NOAUA/KO KULTURALDIA 2019 USURBIL AZAROA

SARRERAK: Aldeak aurkari Bortolan, Tainitan, Lizandri eta Noaualdeko egoitza. Noaualdeko bertsoak prezio berean Noaualdeko egoitza alde aurkari. *BAZKARI-TXARTELA: Bortolan, Noaualde eta Aitzagan salgai.

I GOIZUETA ESKU PILOTA

Umore Ona Pilota Txapelketa martxan, bihartik

Goizeko 10:00etan hasita izanen dira aurreneko jardunaldiko partiduetak; finala, aldiz, 2020ko urtarrilaren 14an izanen da. Horrez gain, atzo egin zuen debuta Iker Salaberria goizuetarrak profesional mailan.

BOSGARRENEZ antolatu du izen bereko txapelketa Umore Ona Pilota Elkartek. Bihar izanen dira aurreneko partiduetak, goizeko 10:00etatik aurrera, eta urte berriaren hasierarekin izanen dira finalak, urtarrilaren 14an.

Nahiz eta hasiera igandearrekin izan, gainontzeko partiduetak ostiraletan jokatuko dituzte, arratsaldeko 17:30etan. Finala baino lehen, bederatz jardunaldi jokatuko dira: azaroaren 8, 15 eta 22an; abenduaren 6, 13, 20 eta 27an; eta urtarrilaren 3 eta 12an.

Lau kategoriatan

Ohi bezala, lau kategoriatan jokatuko dute Umore Ona pilota txapelketa: Umeak, Kimuak, Haurrak eta 22 urtez azpikoak.

Parte-hartzaileen jatorriari dagokionez, 12 taldek hartuko dute parte, Goizuetako Umore

Onako kideez gain: Hernani, Añorga, Olereta, Oiarzun, Azpeitia, Andoain, Leitza, Bortziariak, Lekunberri, Irurtzun, Berbara eta Erreka.

Sei partidu, bihar

Denera, sei partidu jokatuko dituzte bihar. Umeak eta Haurrak kategoriaren barruan, baina; eta Kimuak eta 22 urtez azpiko kategoriako bina. Umeak kategoriako partiduetak irekiko du lehenengo jardunaldia.

Debuta atzo, Salaberriak

Dudarik gabe, asteburu berezia izanen da hau goizuetarrenzat, dudarik gabe. Umore Ona Pilota Txapelketa hasteaz gain, debuta egin zuen atzo Iker Salaberriak profesional mailan. Tolosako Beotibar frontoian izan zen. Partiduen berri biharko alean emanen du Kronikak. ||

UMORE ONA TXAPELKETA Biharko partiduetak

UMEAK

1. B. Narbarte-A. Sagardui (Umore Ona)/A. Legarreta-J. Alsua (Umore Ona).

KIMUAK

2. A. Salaberria-X. Apeztexea (Umore Ona)/B. Azpiroz-M. Korta (Bortziariak).

3. Aizpuru-Cuesta (Añorga)/O. Macicior-E. Oses (Hernani).

HAURRAK

4. M. Olaitz- M. Leonet (Oiarpe)/E. Etxenike-E. Madariaga (Bortziariak).

22 URTEZ AZPIKOAK

5. F. Arribillaga- A. Goikoetxea (Irurtzun)/Aristi (Getaria)-Salegi (Ilumpe).

6. I. Ugalde-E. Etxeberria (Oiarpe)/A. Aizkorbe-A. Apeztexea (Umore Ona)



Urtarrilaren 14an jokatuko dituzte finalak, Goizuetan. Argazkia. F. Loiarde.

I HERNANI ATLETISMOA



Hirugarren izan zen Hoki Guerrero Lasarte-Oria Bai! lasterketan.

Hirugarren postu bana, Esnaolak eta Guerrerok

Asteburu polita izan dute CD Hernaniko Eva Esnaola eta Hoki Guerrerok pasa den honetan. Frantziako Albi herriko 24 orduko Open-a jokatuko du Esnaolak, eta 210,030 kilometro eginda, hirugarren postua lortu zuen. Munduko Txapelketa ere jokatuko zen egun berean, baina Esnaolak ez du parte hartu ahal izan, ez duelako ziurtatu 200 kilometroko gutxieneko marka azkeneko bi urtetan. Hoki Guerrerok ere, poza ekarri dio Hernaniko taldeari, Lasarte-Oriako XXIV. Lasarte Ori Bai! lasterketari esker. 00:40:19ko denbora eginda, hirugarren postua eskuratu zuen berak ere. ||



Eva Esnaola Albin, Camille Herron estatubatuarrekin.

I HERNANI ERREMONTA

Erremontea probatzeko aukera

Erremonte ikastaroak izango dira 12-14 urte bitartekoentzat azaroaren 18, 20, 25 eta 27an eta 15 urtetik gorakoentzat abenduaren 9, 11, 16 eta 18an. Doako ikastaroak dira, eta 10 euroko fidantza utzi beharko da. Izen ematea kiroldegian edo Hernaniko Gaztelekuan egin daiteke, hurbildu besterik ez dago. ||

Barrenetxea eta Zubiri, gaur Galarretan

Galarretan larunbatetako jaialdia jokatuko da gaur eta bertan Barrenetxea IV hemaniarra eta Zubiri goizuetarra ariko dira. Barrenetxeak izugarritzko joko eta emaitzen bolada ona darama eta ostegunean garaipena lortu eta gero, estelarrean, Ansarekin jokatuko du, Urriza eta Endikaren aurka bolada onak jarraitzeko. Bestetik, Zubirik ere ostegunean irabazi egin zuen eta laugarren partidua jokatuko du. Hau ere urnietar batekin ariko da, Goikoetxea V, eta aurrez aurre Urrutia II eta Larrañaga. Oskar Urrutia berriz ere kantxan da orain urte batzuk erremontea utzi eta gero lanaren ondorioz. ||

I URUMEA POKERRA

Zirkuitu haundiena Donostiara, gaur

Donostiako Casino Kursalen Winamax Poker-Tour txapelketa jokatuko da gaur 14:00etatik aurrera. Hirugarren etapa izango da eta aurretik 2.559 jokalarik jokatuko zuten online eta bertan egoteko 126 plaza banatu ziren. Lehenengo etapan, Madrilan, 15.000 pertsonak hartu zuten parte online. Poker zirkuitu honek 17 etapa izango ditu eta Donostiako bi irabazleek Madrilan, martxoaren 26tik 29ra, jokatuko den final haundira lortuko dute sailkapena. Urumea bailara badira jokalariek eta pokerrean aritzen direnak. Final haundiko irabazleentzat sari oso potoloak daude. ||

■ HERNANI FUTBOLA

Futbol zaleak 'Hernani' izena entzutera ohituko dira goi mailako bi jokalarirekin

Aurten Levantek Hernâni Jorge Santos Fortes portugaldarra fitxatu du, Parmak Hernâni Azevedo Junior du bere taldean. Garai batean, Oporton eta Benfican, oso ezagunak egin ziren Hernâni Ferreira eta Hernâni Neves.

PASA DEN asteazkenean Levantek disgustu galanta eman zien Real zaleei Anoetan 1-2 irabazi eta gero. Realeko aulkian bi hernaniar zeuden; Luis Llopis atezainen entrenatzailea eta Jose Luis Sánchez utilleroa. Beste taldearen aulkian hernaniarrik ez, baina Hernanik eduki zuen presentzia. Jokatu ez arren taldeko garaipenaren partaide izan zen Hernâni Jorge Santos Fortes jokalaria *Hernani* bezala ezagutzen dena.

Levanteko jokalaria aurten fitxatu berri du Levantek eta Real Madriderako bere izena ere entzun zen. Jokalari portugaldar honek 28 urte ditu eta ibilbide luzea egin du Atlético C.P. Mirandela, Vitoria de Guimaraes, Oporto, Olympiacos eta orain Levanten. Extremo bizkorra da, nahiz eta orainoz ez duen bere mailarik hobere-
na eman.

Parman, beste 'Hernani'

Hala ere ez da Hernani bakarra. Italiako Serie A-n badago beste jokalaria bat Hernani herriaren izen berdinarekin. Hau ere puntako jokalaria, goi mailakoa, baina bere jatorria desberdina da. Hernâni Jorge Santosek Cabo Verde eta Por-



Hernâni Jorge Santos Fortes, Hernâni Azevedo Junior eta Hernâni Neves.

tugaleko hiritartasuna baditu, Hernâni Azevedo Juniorrek brasildarra du. Hernâni Azevedo Junior *Hernani*, 25 urteko erdilariak Parmarekin fitxatu du aurten nahiz eta orainoz ez duen jokatu.

Azken urteetan Zenit Sant Petersburg talde sendoan aritu da eta urtebete Sant Etienne jokatu zuen utzita. Atletico Paranaenseko harrobitik irten

zen eta gero Errusia aldera joan zen.

Hernâni Ferreira da Silva eta Hernâni Neves historikoak

Futbolean *Hernani* ezagun eta izen haundiak baldin badaude horiek Hernâni Ferreira eta Hernâni Neves dira. Lehenengo askorentzat Oportok inoiz eduki duen jokalaririk osoena. 2001ean hil zen 69 urte zituela

eta Pedroto, Virgilio, Jaburu o Arcanjorekin batera Yustrichen *Gaindiezinak* bezela ezagutu ziren. Portugalen Eusebioren Benfica historiko eta haundia iritsi arte zegoen talderik onena. Portugalekin 1965garren urtera arte beti jokatzeko zuen.

Eta Benficakoa zen hain zuzen Hernâni Neves. 80 eta 90garren hamarkadan jokatu zuen Benfican eta aski ezagu-

na zen. Benficarekin Milanen aurka Europako Kopako finala galdu zuen 1-0 eta behin zelai haundia utzita hondartzako futbolean hasi zen. Kirol horretan askorentzat egon den jokalaririk onenetakoa da *Hernani*. Vitoria Setubal taldean hasi zen jokatzeko, orain 56 urte ditu, eta 2008an hartu zuen erretiroa hondartzako futbolean. ||

■ HERNANI OBSTAKULU LASTERKETA

Emaitza onak, Monteagudoko Roman Race-ean

Aurreko asteburuan Monteagudoko V. Roman Race lasterketan izan ziren Hernaniko Denontzat Gimnasioko kideak.

NAFARROAN izan zuten zita aurreko asteburuan Hernaniko Denontzak Gimnasioko kideek, Monteagudoko V. Roman Race lasterketan.

Lasterketa honi «maitasun berezia» diotela azaldu dute, bertan jasotako tratua izugarria izan baita. Gainera, eskuratutako lorpen guztiekin oso pozik azaldu dira, izugarrizko asteburua izan dutelako.

Hauek izan dira emaitzak: taldekako kategorian lehenengo postua eskuratu zuten, gizonetakoan Asier Landartek eskuratu zuen lehenengo postua eta Ismael Mateok bigarrena. Emakumeetan aldiz, Eider Alonso bigarren geratu zen eta Almudena Muñoz hirugarren, eta 50 urtetik gorako kategorian, Felix Gomezek eskuratu zuen bigarren postua. ||



Taldekako kategorian lehenengo postua eskuratu zuten Hernaniko Denontzat Gimnasioako kideak.

GAUR Tenperaturak behera egingo du eta beriz ere euri kontuak izango dira. Zeruia lainotu samar ikusiko da ia egun osoan eta euria egin badezake ere, ugariagoa izango da arratsalde-gauetan. **Min.13° / Max.17°**

BIHAR Freskatzera jarraituko du eta goizealdean eta goizean egingo du euria bereziki. Goizaldean haizea oso indartsu ibiliko da eta arratsaldean ahuldu egingo da. **Min.12° / Max.16°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizeta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizeta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizeta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizeta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI SAGARDO FORUMA

Sagardo zaporedun jardunaldiak laster, Oronan

Hilaren 21, 22, 23, 24 eta 25ean, III. Sagardo Forum jardunaldiak egingo dira, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta. Egingo diren hitzaldiez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da, hilaren 23an.

HILAREN 21etik, 25era bitarte, III. Sagardo Forum ospatuko da, Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko jardunaldiak lelopean. Hainbat ekitaldi eta hitzaldi antolatu ditu Sagardoaren Lurraldeak, Galarretako Orona-Ideon.

Hamaika ekitaldi, III. Sagardo Forumean

Hilaren 21 eta 22an, jardunaldi teknikoak egingo dira Oronan. Bertako eta nazioarteko hainbat profesionalak hitzaldiak egingo dituzte, «egungo egoerari ikuspegi orokorra eskaini eta azken urteotan sagardoaren alorrak bizi izan duen bila-kaeraren berri emango dugu» adierazi dute antolatzaileek.

Ekimen honez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da, hilaren 23an, Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian, hain zuzen ere. Bertan, «munduko hainbat tokitatik etorritako dastatzaile prestigioitsu izango dira». Honakoek beideratzi kategoriatan sailkatutako hainbat sagardo mota dastatuko dituzte, hala nola, Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa, sagardo natural asturiarra, sagardo tradizional frantsesa, sagardo tradizional ingelesa, sagardo berria, premium sagardo apardunak, apfelw sagardoa, zaporetako sagardoa eta urardoa, eta izotzezko sagardoa.

Lehiaketara aurkeztutako onenak aukeratu dituzte, aipatutako dastatzaile profesionalak.

«Munduko hainbat tokitako dastatzaile prestigioitsu izango dira antolatutako jardunaldietan».

Antolatu diren ekimenez gain, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa jokatu da.

Aurten, berrikuntza

Urte honetan, berritasun gisa, Nazioarteko Sagardo Azoka antolatu da, hilaren 24 eta 25ean, Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian. Azoka hau, profesionalak eta herritarrei zuzenduta dago, eta antolatzaileek adierazi dute aukera dagoela bertako erakusmahai bakoitzean dagoen sagardo mota ezberdinak dastatzeko.

Bost egun, sagardo zaporekoak

Antolatuko diren bost egun horietan, III. Sagardo Forumak, Sagardoaren Lurraldean «batuko ditu landuko diren gai bakoitzeko profesional puntako-enak». Beraz, azaroaren 21etik 25era, aukera paregabea egongo da, esperientzia berriak bizitzeko eta hautetatik ikasteko. Antolatzaileek adierazi dute,



Aurreko urteko II. Sagardo Forumean bisitak egin ziren sagastietara.

sagardoaren egungo errealitateaz jabetzeko aukera ezin hobe dela.

Hori horrela, III. Sagardo Forumeko jardunaldietara gonbitea luzatu nahi izan dute herritarrentzat, «zuen zain izango gara!».

Kontaktatzeko datuak

Informazio gehiago behar izanez gero, 934 55 05 75 telefonora deitzeko aukera dago, edo emaila bidali helbide honetara; info@sagardoarenlurraldea.eus. Bestela, web orrian sartuz, www.sagardoarenlurraldea.eus sartuz. II

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko alde zaharrean etxebizitza salgai; sukaldea, sala, 3 gela, 2 komun, gas kalefakzioa eta igogailua. Eraikuntza berria. Deitu: 635 758 661

Aulki elektrikoak salgai, 1300€. Egoera onean. Deitu: 679 152 034

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

